

**Goibekokale**

1996ko azaroa. 18zk.

ELGETAKO ALDIZKARIA

# ALKOHOLIKOA BIZIOSOA BAINO GAIXOA



F. IRIBAR  
SALBADOR 9-1ª EZK.

*Maderas Gallastegi, s.a.*

**MENDI UZTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA**

Azkarreta cruzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.

# Kartak

## Agur, Elgeta!

Gaindegian ezarririk,  
magaleko ibarren zaindari,  
zuri; antzinako herri zaharrari,  
gorasarre hau diotsut, ene Elgeta hori.

Etorri berria nauzu,  
eta zuk ostatu eman didazu,  
aurrez zuregana bilduei bezalatsu,  
abegi ona doan ematea berez baitagokizu.

Bizkairantz bizkarra harresi,  
Gipuzkoarantz, berriz, bada zer ikusi,  
ekialdetik mendebalerantz herria da hazi,  
zerurantz begira altxata zauden azkon eta gezi.

Ikuskizun aparta gailurretatik:  
Durangaldeko lautada ipar aldetik,  
Udalaitz eta Anboto harkaitzak albotik,  
haranek, aldiz, behelainopean diraute loti.

Iraganean hirigotor zintuzten auzunek,  
auzo-herriek bidegurutze eta topagune,  
gertakari gazi-gozen orotarri eta ohikune,  
sendo biziraun duzu lehen eta bai gaur egun ere.

Gerrak suntsituriko etheen orde, Artekalen  
industri, kirol eta gazte-kultur ekimenak dira gailen;  
hor haizerauntsiei eta laiotzari aurre egin bazieten lehen,  
herri kiroletan karta-jokoa da notizi, gaur, *Goibekokalen*.

Asmatuko al duzu, astegun izan ala festa,  
geroan datorkizun erronkari erantzuten, Elgeta?  
Duela gutxi hala egin zigun Udalak inkesta.  
Bai horixe! Hori baino gehiagorako ganora duzu eta.

Zer emanik eta zer jasorik baduzu.  
Etorriberri honek diosal hau luzatzen dizu:  
Bejondeizula diotsut, bihotzez eta eskertsu,  
etorriaz batera, besterik gabe, zeure egin bainauzu.

Jose Luis. Abadea

## UNUNTERWERFUNG

Ba al dakigu benetan zer den intsumisioa?. Batzuk alde eta beste batzuk aurka, baina uste dut gizartean edo gure inguruan ez dagoela ondo zabaldua zer den intsumisioa eta non kokatzen den benetan.


Intsumisioa ez da bakarrik soldaduzkara ez joatea. Hori baino askoz gehiago da, eta horrela uste dut pentsatzen dutela talde antimilitaristek. Hitz hau da ain zuzen ere gaiaren gakoa ANTIMILITARISMOA, hau baita talde antimilitaristen helburua. Helburua ez da bakarrik DERRIGORREZKO zerbitzu militarra desagertaraztea, militarismoak eta ejerzitoek dakartzaten eta inposatzen dituzten baloreen desagertzea baizik, (indartsuenaren legea, matxismoa, obediencia its-ua, jerarkizazioa, armamentismoa eta bere eraginak 3. mundua deitutakoan, etab).

Beraz, derrigorrezko zerbitzu militarri intsumisioa egitea talde antimilitaristen helburuetan pauso txiki bat besterik ez da baina, pauso garrantzitsua izan behar duena gizartearen benetako kontzientziaziorako.

Espero dut munduko beste edozein txokotan eta beste edozein hizkuntzatan horrelako zutabe bat idatziko zutela. Horrek esan nahiko du hemen orain arte intsumisioek jasan duten gartzela zigorrak eta hemendik aurrera jasango duten heriotza zibilak, zerbaitearako balioko duela.

Intsumisioaz, mundu guztiaren desmilitarizaziorantz.

Bittor Gallastegi Olabarria



*Estampaciones* **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatua.



## Etxearen eraldakuntza

**B**etidanik izan da etxea bizitzako leku pribatu eta intimoena. Gure ametsen leizea.

Etxeek izan duten garapena kontutan izanda gizakiaren une historikoetan barneratu gintezke.

Horrela, etxeak izan duten eraldatze prozesua, komunikazio eta teknologia berriek izan duten garapen azkarrari lotua dago. Bizitzeko era berriez ari garela, baditugu hainbat adibide:

Gizarteratzeko instrumentu moduan izan zuen sarrera irriatiak etxeetan. Irratia zen soinuaren igorle (musika eta hitza).

Telefonoak urrutikoekin komunikazioa eta erlazio pertsonalak bideratzea ahalbidetu zuen. Telefono mugikorrek ere lekua hartzen ari dira eta hark nahi duen lekura laguntzen dio.

Telebista etxean ikusi ahal izateak munduaren ikuspegia gerturatzen digu. Informazio eta entretenitzeko aparailua da eta radikalki aldatu du etxeko bizi-modua. Duen influentzia audientzi altuak adierazten digu, baita kanpotik datorren kontrol horrek pertsonen autonomian duen eraginak sortzen dituen eztabaidak.

Teledirua ere, etxeko antolamendu era berri bat eragiten ari da.

Beharbada, eraldakuntzarik garrantzitsuenaren INTERNET sareak sortua da, erreprezentagarria eta era guztietako informazioguneak gure eskura jartzen dituena. (45 milioi erabiltzaile eta 100 herrialde baino gehiagoz osatutako sareaz ari gara hitzegiten.) Internet pertsonak zein erakundeak darabilte eta eskaintzen dituen zerbitzuetariko batzuk posta elektronikoa, berrien zerbitzua, objektu batzuetara distantziak heltzeko posibilitatea eta fitxeroen trasferentziak dira. Informazioaren autopista hauetan nabigatzeko telefono linea bati konektaturiko ordenagailua behar da eta peajea hizkuntza dugu, ingelesa.

Etxearen eraldakuntza hasi besterik ez da egin. Datozen urteotan eraldakuntza handiagorik ikusiko al dugu?

Manolo Cainzos



## Zaire

**N**orberak jakin barik ospitalean denbora luzean gaixo egon ondoren ezagun bat, lagun bat, hil dela jakitean, ez dakigu zer egin, entziarrura joan eta desgraziaren berri guztiei ematetik aparte. Halaxe


dabil lur honetako Ipar aberatsa Zaire eta Rwandako milaka hildakoeekin eta noraezean dabilzan ehundaka mila errefuxiatuekin: gaixotasunak konponbidea zeukan bitartean funerariak antolatzen pasa dugu denbora, eta orain hiletak ere ez dakigu nola antolatu.

Hutu eta Tutsien arteko borroka lasgarri horretara mugatzen dute komunikabide askok Kivu lakua- ren inguruan gertatzen ari dena. Inork ez digu esan nork saldu dizkien arman, zein Europako estatuk axaxa eman dion talde bakoitzari bestearen aurka joateko.

Ez Zairek, ez Rwandak, ez Burundik,... Hirugarren Munduko ia Nazio batek ere ez dauka arma indutriarrik, eta bertan nagusi diren elitearekin antolatzen diren "Garapenerako Laguntza Plangintzak" askotan merkatal harreman desorekatu batzu besterik ez dira: lehengaien truke armak saldu. Behin armak saldu ondoren "Kooperazio programa" antolatuko dute maneja erakusteko. Gerra piztu ondoren arma saltzailleak prest azalduko dira Nazioarteko Indar bat osatu eta "gerra basatia" gelditzera joateko, bakoitzak norberaren ejerzitoaren dohai humanitarioak telebistaz zuzenean erakutziz.

Eta bitartean gaixotasunaren izena denok dakigu; Pobrezia. Gaixotasun hori osatzeko botika ere ezaguna da: Solidaritatea, hau da, guretariko bakoitzak daukana, gurea beste ez daukanarena dela onartzea. Merkatal harreman justuago bat eratu beharrean gaude mundu guztian, eta horretan bakoitzak ere asko egin dezake: erosketak egiterakoan multinazional zapaltzailleak boikoteatuz, ONG-ren baten parte hartuz,... begiak zabal edukiz, ze bestela, ez dugu jakingo zein lagun dugun ospitalean hurrengo hil-kanpaia entzun arte.

Jose Angel Mikeo



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldiria




Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

## GOIBEKOKALE

**Argitaratzailea:** Elgetako Gazte Asanblada. Salbador 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal **Koordinatzailea:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Oxel Erostarbe, Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Eider Saratsua eta Iker Irazabal. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Argazkien errebelazioa:** Txuri-Beltz argazkizale taldea. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Manolo Cainzos, J. A. Mikeo eta Belen Maiztegi **Administrazioa:** Esti Retolatza eta Susana Jimenez. **Publizistak:** Onditz Villa eta Eider Etxaniz (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 600 ale. **Inprimategia:** GERTU koop (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.



## AEK-ko UDA BARNETEGIAK ELGETAN

Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak Elgeta aukera dezake 97ko udako barnetegiak antolatzeko. AEKko koordinatzailea Elgetan izan da bertako instituzioekin hitzegin eta akordio batzutara iristeko.

AEK-ko ordezkarien ustez, Elgeta oso toki aproposa da, uda-barnetegia antolatzeko. Euskararen portzentia oso altua da Elgetan, eta honekin batera baita euskararen erabilera ere. Kontutan hartzeko datuak omen dira gisa honetako barnetegiak antolatzeko. AEK-ko ordezkariak azpimarratu duenez, arrera oso zabalà izan da udaletxe eta elkarten aldetik eta jarrera hau ikusita, ez du oztopo asko ikusten. Dagoeneko Elgetak zer eskain dezakeen ikusi du eta ez dirudi eragozpen handirik egongo denik. Hala ere, oraindik zenbait gauza daude lotzeko.

Udako barnetegi hauek uztaila, abuztua eta irailan izaten dira. Guztira 100 lagun inguru etor daitezke Elgetara akordio batera heltzen bada behinik behin.

## LUZIO ETA FAKUNDORI OMENALDIA

Aurreko alean egin genuen elkarrizketan, Luzio eta Fakundok omenaldia Bilbon izango zutela esan genuen. Datu hau zuzendu behar dugu omenaldia, Elgetan izango baita abenduaren 14an. Horretako, Eibarko "La Estrella" elkarteak bazkaria antolatu du Bolatoki tabernan. Parte hartu nahi duenak, izena eman beharko du Bolatokia tabernan.

## GABONETAKO POSTALEN ETA IDAZLANEN LEHIAKETA

Elgetako udaletxeko kultura batzordeak bi lehiaketa antolatu ditu herriko neska-mutikoentzat. Lehenengoa idazlan lehiaketa da eta 3. mailatik hasi eta bigarren derrigorrezko hezkuntza egiten dutenei zuzenduta dago. Bi gai nagusi, "Gabonak iritsi dira" eta "Gabon ipuina". Haur bakoitzak dagoeneko jaso ditu, gainontzeko baldintzak. Idazlan onenak aldizkari honetan agertuko dira.

Bigarren lehiaketan, 3 urtetik 14 urte bitartean daudenak hartu dezakete parte. Aurkeztu beharreko lana, gabonetako postal bat izango

da. Tamaina eta materialak norberak aukera ditzake. Abenduaren 21ean erakusketa egingo da partehartzaile guztiekin.

Lanak abenduaren 9a baino lehen aurkeztu beharko dira udaletxeko kultura zerbitzuan. Epaimahaia, gurasoen elkartez, eskolako irakasleez eta *Goibekokaleko* talde batez osatuta egongo da. Epaimahaiak, bere erabakia emango du abenduaren 21ean egingo den jaialdian. Sari banaketa arratsaldeko 5etan izango da Polikiroldegian. Ondoren jaialdi bat antolatu da diskoteka mugikor batekin.



Ziur Elgetako neska mutilak ere horrelako postal politak egingo dituztela.

**TABERNA**

Larunbata eta igandetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

PRIMA DE ROKUA  
TATETXEA

tel:768273

**M<sup>A</sup> Karmen Lenzeria**

Lenzeria eta kosmetika gaiak

Salbador zeharbidea.

Tel: 789040

**IBAIBA-RRIAGA**

GARRAIOAK

Tel: 768072

Salbador zeharbidea 2

ELGETA

## JABIER AZPILLAGA: "ARAU SUBSIDIARIOEK DOKUMENTU BIZIA ETA IREKIA IZAN BEHAR DUTE"

-Arau subsidiarioen berrikusketa egiteko asmoa du udaletxeak. Azkena 1979an egin zen-

Jabier Azpillaga, Elgetako udaletxerako lan egiten duen arkitetu bat da. Berak, beste 8ko talde batekin, Toledo taldea osatzen du Lasarten. Urbanismo eta eraikuntza mailan dituzten ezagupe-nak udaletxeen zerbitzura ipin-tzen dituzte. Orain sesio informa-tiboak egiten ari dira herritarren artean arau subsidiarioak berri-kusteko.

1979az geroztik, Elgetako eraikuntza politika ez da aldatu. Orain dokumentu honen berriketa egitea planteiatzen ari dira. Arau subsidiarioak Jabier Azpillagaren esanetan, "udaletxearen biblia dira". Arau hauetan jasotzen dira udalerrri mailan egingo diren ekin-tzak, urbanismo mailan. Hitz gutxi-tan esateko hurrengo 8 urtetan herriak jasango dituen aldaketen arauak: etxeak non eta nola eraiki, industrialdeak gestionatu...

**Nola egiten dira arau subsidiario-ak?**

Lehenik herrian sesio informa-tiboak egiten dira jendearen jarrera jakiteko aldaketan aurrean. Ondoren aurreko txostenaren berri-kuspina egiten da, Elgetaren kasuan 1979koa. Ondoren udalak dokumentu berri bat egiten du, jen-deak duen eskubideetako bat dokumentu horrek bere inguruari nola eragiten dion ikustea da. Ale-gazio hauek udaletxeak kontutan

izan ditzake. Guztia bukatu-ta dagoenean Eusko Jaurla-ritzak onartu beharra du. Prozesuak 2 urte iraun di-tzake.

Prin-tzipioz 8 urte-tarako egiten dira arauak, baina udalak komenigarri ikusten badu aldatu ditzake. Jabier Azpilla-garen ustez, "arauak dokumentu bizia izan behar dute, urte askotarako egiten direlako eta aldaketak gertatzen direlako herri baten bizitzan".

### Etorkizuneko Elgeta

Industria mailan, Pagatza-ko 10 hektareak saldu dituzte. Orain gas horniketa egingo dute eta urbanizazio lanak egin Paga-tzalde eta Berrandokua inguruan. Laugarren sektorea deitzen dena, Zeleta inguruak, Eibarreruntz eta polikiroldegi alderantz, biltegieta-rako aproposak direla esan digu Jabier Azpillagak. Herritik oso hur-bil dagoenez, zaratak saiheztuko dituzten tailerrak dira egokienak.



"Bariantea egingo da. Arrasateko bidea Elorrikoarekin lotuko da herritik pasatu gabe eta ondoren Eibarkoarekin".

Etxebizitzei dagokionez, laster hasiko da Domingo Iturbe kalean dagoen etxeen bigarren fasea, 12 etxeekin. Sektore hau eta Larrabil zeharra, toki egokiak dira Azpillagaren ustez bi etxebizitza-koak eraikitzeko. Lasao eta Salba-dor kaleen inguruan proposatutako 60 etxeek ez dute inor erakarri.

Azpiegituretan, bariantea egingo dela azpimarratu zuen Jabier Azpillagak. Dirua falta da mugitzen hasteko. Arrasateko bidea Elorrikoarekin lotuko zen, herritik pasatu gabe. Ondoren Larrabil zeharrerraino luzatuko zen bariantea Eibarko bidearekin lotuz.



## Parrokiak aldizkaritxo martxan ipini du

Angiozarko Parrokiak, Elgetakoak eta Uberakoak bezala, aldizkaritxo bat martxan ipini du, azaroko azken aste honetan banatu delarik etxe guztietan.

Aldizkariak "Elizateko Orrixa" dauka izena. Eliza eta etxearen arteko lotura izan nahi duelarik. Aurkezpenean dioenez Parrokia-Elkartearen kide berri diren guztiei ematea du helburu, hain sakabanatua egonik Angiozar, komunikazio arazo bat baita biztanleen artean.

Lehen aleak itxura apaina du, "0" alea izanik inkesta bat dakar eduki nagusizat, baina gerora edukiak maminduz joango ei dira: ekintzak, lan-taldeak, parrokiako gora-beherak, eta abar jorratu nahi direlarik bertan.

## Gaztetxean txukuntze lanak

Azaroaren erdialdean inguruan hasita Gaztetxean txukuntze lanetan dihardute gazteak: Tetxuak garbitu, habeak bisaratu, hormetako harriak azalerratu... guztia lokala egoera onargarrian lagatzeko asmoz. Behin hasierako garbitze lanok eginda koan eta hormak errebotatu ondoren, komun berria ere egingo da, betidanik Gaztetxeak eduki duen hutsune bat izan da eta.

Gabonetarako bukatzeko asmoa daukate lanok eta aipatzekoa da lan gogorrenak gazteek egin dituztela beste laguntzarik barik.



Azkunetako San Martin Toursekoaren eliztzaurrean bertara bildutakoak. Argazkian nabarmen ikus daiteke ermitaren teilatu berria eta ipini berri diren argien farolak.

## AZKUNETAKO JAIAK

Pasa den azaroaren 9an, Azkunetan Tours-eko San Martinen jaiak ospatu zituzten, jende dexente bildu zelarik bai mezetara eta baita ondoren guztiei banatu zitzaizen salda eta bokautxora.

Urteak pasa dira Azkunetan jaiak meza hutsarekin ospatuz pasa dutenak, baina aurten buelta eman zaio joerari eta uda hasieran ermitaren teilatu berria egin eta barrukaldeak ere txukundu zituzten. Lanok burutzeko erakunderen baten laguntza edukiko zela uste bazen ere ez da halakorik egon, eta auzoa osatzen duten hamar etxeen artean eraman dute gastuen zama guztia.

Eliza berriztuaz gain bertaratutakoek aurten ipinitako argi-publiko instalakuntza berria ikus-

teko aukera izan zuten, farola dotoreak tarteka-tarteka etxarteok dotoretuz (martxan ipini zituztenean horren berri eman genizuen *Goibeko-kaleko* irakurleoi) eta kale itxura emanez auzoari.

Datorren urterako soinu eta guztiko jaiak iragarri dizkigute Azkunetakoek, aurten musikaren falta igarri da eta meza osteko jarduna alaitzeko, baten baino gehiagotan ahoan egon baitzen Aldeko-na baserriko atarian egindako dantzaldi eta erromeria haien aipamene.

Azkunetako hauekin zortzi dira Angiozar Bailaran urtean zehar ospatzen diren jaiak, horietatik lau azken urteotan berreskuratu direlarik.

Taberna Zaharra  
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar

zeleta jatetxea

tel:768151

gustora  
sentituko  
zara.

# LEHIAKETA



Mundu guztian ezaguna zela genioen eta badirudi egia dela. Bere hortzak ere ezagunak dira nonbait eta zer esan bere begiez... Jaso dugun karta kopuruak horrela erakusten du. Sekula baino karta gehiago jaso ditugu eta oso pozik gaude.

Tamalez, ezin dugu denontzako afari bana eman baina oraingoan ere birentzako afaria banatuko dugu. Beste karta guztien artean saritua **Isabel Arantzabal** izan da. **Zorionak!**

Badirudi jendea animatu dela idaztera. Jende hedadetu askok idatzi du eta gainera gehienak erantzun zuzena eman dute. Ea oraingoan ere erantzun zuzen mordoak dugun. Kantariak ondo ezagutzen dituzuela dirudi eta kantari edo kantautore mundu horrekin segituko dugu. Nor da argazkian ageri dena?

Erreza ezta? Badakizu zer egin, hartu arkatza eta papera eta idatzi **Goibekokalera**. Ez zara damutuko.

### Goibekokale


Elgetako aldizkaria  
Salbador kalea 2 Kultur etxea  
20690 Elgeta




Izena eta abizena: \_\_\_\_\_  
Erantzuna: \_\_\_\_\_  
Bizilekua eta telefonoa: \_\_\_\_\_



## KOMIKIA



## Zuk uste dozu sexua ta maittasuna lotuta egon bihar diala?



Jubilaua (73 urte)

Nik pentzatzen dot sexua eta maittasuna alkarri lotuta doiazela. Neretako gizon ta emakumiak alkarrena enamorauta egon bihar diala sexu hartuemonak eukitzeko, ostantzian jai dao.



Tabernaria (50 urte)

Hori neretzako momentuaren arabera da, nik ez dot uste batura bat emon bihar dala maittasuna ta sexuaren artean. Gauza bat gura dozunian ez dauka bestiak zertan egon.



Langabetua (40 urte)

Bai, nik uste dot baietz, maittasuna ta sexua lotuta doiazela, ezin da maittatzin ez dozun pertzona batekin sexu hartuemonik euki, neretako dana batuta jua bihar da.




Tabernarixa (26 urte)

Neretako relaziño luze baterako bai, baiña ez badaukazu intentziñorik relazinua luzia izatia, gabe baterako edo, nik pentzatzin dot ezetz. Segun zuk zelako relaziñua bihar dozun.



Ikaslea (18 urte)

Neretako bai, sexua zure sentimentuak adierazteko modu bat da, sexua maittasunan barruan doialako.



Ikaslia (16 urte)

Nere ustez bai, maittasunik barik ez daolako benetako sexurik eta, sexurik barik ez daolako benetako maittasunik. Hala ta be, gaztien %80xan erakrpen txiki batekin sexu hartuemonak ematen dia.

### ZABALA

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201



### HERMANOS S.A.

EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA



♈	<b>Aries:</b> Irratian lan eitteko balio dok/n, eñ aprobato bat.
♉	<b>Taurus:</b> Zinera joan haixela? ez dok/n hire bizi modua nahikua pelikula edo?
♊	<b>Geminis:</b> Ezik/n eñ gauza guztiak batera ez dua/ez doña onik ekarriko ta.
♋	<b>Cancer:</b> Konprak eittera jua aurretik espilluan begiratu.
♌	<b>Leo:</b> Erregia baino hobeto zaintzen habe, aprobetxatu momentua.
♍	<b>Virgo:</b> Fontaneruai deittu barruko itxoiña konpontzeko.
♎	<b>Libra:</b> Etxaok/n hi baiño bizkorragoik... dana hankazgora lagatzen.
♏	<b>Escorpio:</b> Kontxatik bueltatxo bat eñ, ia sirenatxon bat agertzen dan.
♐	<b>Sagitaris:</b> Halako martxan trenak baiño ume gehixau ekarri biok/n.
♑	<b>Capricornius:</b> Burua errebentau baiño lehenau haixe pixkat hartik/n.
♒	<b>Acuaris:</b> Telebisiñua bost minutu amatatzearren trankil, Iberduero ez dok/n kejauko ta.
♓	<b>Piscis:</b> Trankil, egualdixan kanbixuak ez dau onik ekarriko ta.

## Jabier Errasti Karnizerua (61 urte)

**Zenbat urte biharrian?** 50 urtian.

**Zu, semia, karnizero izatia familixatik dator?** Ez, ez dator familixatik ni nai lehenengua.

**Zer izatia gura zeunke zure loibia?** Bera be karnizerua izatia gura nik.

**Nundik ekartzen dozu okelia?** Oñatitxik.

**Negozio ona da?** Bihar asko ta diruaz larri.

**"Behi zoruak" diala eta jentiak okelia erostiari laga dotza?** Ez, hamen ez.

**Ez dan saltzen okeliakin ze eitten dozu?** Hemen dana saltzen da.

**Kaltontzilo luziak ala motzak?** Motzak.

**Eñ dozun ebagirik txarrena?** Noz behinka eitten dittut hatzamarretan, argi ibili bihar da bestela askotan eñgo giñuke.

**Lana eitteko sasoirik onena?** Jende ugari dagonian.

**Zure lanetik gutxien gustatzen jatzuna?** Dana gustatzen jata.

**Badakizu labadoria ipintzen?** Hori andrian biharra da.

**Zenbat urte daukaz zure kamionetiak?** Nerekin 18 urte.

**Hil dozun azkenengo zezena?** Astelehenian.

**Afaririk gustokuena?** Atzo eñ giñuan, konejua jan giñun.

**Zerk eñgo lotzuke zoriontsu?** Txal onak.

**Zer nahixau armozua ala hamarretakua?** Bixak

**Noiz bota dozu azkenengo gaupasia?** Urte asko pasau dia, aspaldixan ez dot eñ gaupasaik.

**Zer esango zeinkio karniserixara juaten jatzun jentiai?** Gehixautan etortzeko ta kartera handixakin.



**Goio Sarasua**  
Igeltzeritza lanak  
Teillatuak                      Sukaldeak  
Bosqueak                        Komunak  
Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta  
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

**TAPEM, S.A.**

**Trokelak eta estanzazioa**  
**TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK**

## "ALKOHOLICOS ANONIMOS", GAIXOTASUN BATEN IRTENBIDE

"Alkoholicos Anonimos" erakundea oso zabaldua dago gaur egun Euskal Herrian. Nahiz eta oso hedatua egon jende askok oraindik sekta bat bailitzan ikusten du. Sekta bat dela ezeztatzeko eta erakundearen eta alkoholikoen inguruan gehiago jakiteko Feli-xekin egon gara berak bizi izan baitu gaixotasun hau.

- Noiz konturatzen da bat alkoholikoa dela ?

Ezin denean kontrolatu konturatzen da. Esnatu bezain laister gorputzean izaten den urduritasun edo "tenblekea" kentzeko alkoholaren beharra sentitzen da eta alkoholiko zarela konturatzen zara.

- Zerek bultzatu zintuen alkoholiko izatera?

Galdera hau ez nizuke jakingo erantzuten. Lehen esaten zen alkoholismoa bizio bat zela baina argi utzi behar da alkoholismoa gaitz bat dela eta ez bizioa.

- Edari batzuk beste batzuk baino gehiago edaten al dira?

Alkoholikoari, alkohola gustatu baino gehiago sortarazten duen eraginaren bila doa. Ez dio kalitateari begiratzen, ez dio ardura ardo ona edo txarra edatea. Alkoholiko bat ardoa edaten hasten bada, nahiz eta asko edan, azkene-


an ez dio inolako eraginik eragiten eta ginebra edo kognaka edaten hasten da hauek indar gehiago baitute. Bere helburua alkoholak eragina sortzea da.

- "A.A."-en egoteak laguntzen al du?

Bai. "A.A."-en egoteak asko laguntzen du. Norberak bakarrik, inolako laguntzarik gabe, ezin du alkohola utzi. "A.A."-en gaudenok lagundu egiten diogu bata besteari espe-rirentziak kontatuz etab. Laguntasun honek moral handia ematen du aurrera jarraitzeko. Gaur egun esan dezaket nire buruan ez dela alkohol hitza kabitzen, nahiz eta argi daukadan edozein momentutan berriz ere edaten hasi naitekeela.

- Etxean arazo handia sortzen al du alkoholiko batek?

Bai. Alkoholiko batek familiar arazo handiak sortzen ditu. Bai emaztearekin eta baita seme-alabekin ere. Etxean ez da elkarrizketa-



"A.A."-eko arauak dioenez erakunde barruan daudenek ezin dute publikoki aurpegia eman.

rik egoten, alkoholikoa edateaz bakarrik arduratzen baita. Poltsikoan bost duro izanez gero nahikoa du alkoholikoak. Alde batera uzten ditu emaztearen eta seme-alaben beharrak.

- Alkoholak sortzen al ditu "efectos secundarios" deritzanak?

Alkoholak normalean beti sortarazten ditu beste zenbait gaitz. Batzuei buruan egiten die kalte, beste batzuei berriz gultzurrunetan, hezurretan edo gibelean.

- Elgetan zenbat zarete "A.A." zaudetenak?


Herrian ez gara asko. Lau gara. Baina esan beharra dago beste

*Alkoholiko batek familiar arazo asko sortzen ditu.  
Poltsikoan bost duro izanez gero nahikoa du  
alkoholikoak, alde batera uzten ditu emaztearen eta  
seme-alabaren beharrak.*

**Hozkailuak eta  
izozkailuak  
aire  
girotua.**



Salbador 21  
Berraondokua 7  
Tel eta faxa: 78 90 46



**KONTXI  
ARRANDEGIA**  
Salbador 5 Tel: 768009

Antonio Rodríguez Da Cruz



Hoditeria

Galdaragintza arina  
Soldadura homologatuak  
Erremitteritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA  
Tel: 76 81 01 Faxa: 78 90 14

herrietatik etortzen direnek laguntza handia ematen digutela.

**- Noiz, non eta zenbat aldiz elkartzten zarete?**

Egunero dauzkagu bilerak, astelehenetik hasi eta larunbateraino. Bergaran, Arrasaten, Elgetan, Eskoriatzan, Eibarren eta beste zenbait tokitan. Lan kontuak direla medio denetara ezin izaten dugu joan baina posible denean behintzat saiatzen gara joaten. Gaur egun "A. A." nahiko zabaldua dago Euskal Herrian eta ez dugu inongo arazorik.

**- Jendeak alkoholikoak zaretela konturatzen direnean, beste begi batzuekin begiratzen al zaituztete?**

Nik ez dut uste horrela denik. Sarritan guk uste dugu mundu guztiak gu begiratzen gaituela baina gure pentsamenduak besterik ez direla uste dut. Gu ez gara bitxo arraroak eta behin alkohola utziz gero pertsona normalak gara. Gerta daiteke "A.A."-en hasi berri den bati horrelakorik gertatzea, baina niri behinik behin jendeak begiratzea ez dit asko ardura.

**- Familiak asko lagundu al dizu?**

Bai asko. Ni oso pozik nago nere familiarekin bestela etxetik bidalia ninduten dagoeneko. Emazteak, semeak eta familiak asko lagundu didate eta eskerrak eman nahi diet. Bestalde "A.A."-en barruan badaude bi erakunde Al-Anon (senar-emazteentzako) eta Al-Atin (seme-alabentzako) eta bertan elkartzten dira beraiek dituzten

arazoak jakinarazteko eta aztertze-ko. Alkoholikoa bera ez da gaixorik dagoen bakarra ingurukoak ere gaixotzen ditu.

**- Botila ardoa ikusten duzunean zer datorkizu burura?**

L e h e n tentazioa izaten nuen. " Joño, ardo fresko horri trago bat emango nioke ba! " esaten nion nere buruari, baina aspaldian nahiz eta ardo eta patar artean ibili burutik pasatu ere ez zait egin alkohola edatea.

**- Bere buruaz beste egitea pentsatzen al du alkoholikoak?**

Bai. Beren arazoei aurre egin ezinik bere buruaz beste egin dutenak badaude. Beste batzuk eroetxe eta beste horrelako zenbait lekutan daude. Medikuek ere gutxi laguntzen dutela dutela esan beharra dago, oso gutxi baitira " A.A."-era bidaltzen zaituztenak arazoari aurre egiteko.

**- Beste herri batzuetako alkoholikoekin ba al duzue harremanik?**

Bai. Gipuzkoan badaude "Intergrupalak" deritzan bilerak eta hiru hilabetero elkartu egiten gara. Elgetan ere 200 pertsona inguru elkartu ginen eta afaltzera 70 gelditu ginen. Urarekin ere, bai tripa-kiak, bai legatza oso ondo sartzen

## AA-era joateko arrazoiak

* Familiaren presioegatik	% 30,8
* Norberak pentsatuta	% 29,9
* A.A.-ko baten laguntzaz	% 28,8
* Egoera fisiko baxuagatik	% 17,7
* Medikuen bidez	% 17,2
* Informazioa dela medio	% 11,4
* Al-Anon	% 9,2
* Gizarte laguntzailearen bidez	% 3,1
* Abadearen bidez	% 2,2
* Arrazoi judizialak	% 1,5

dira eta jakia hobe bada oraindik eta gustorago.

**- Alkoholikoak zaretela konturatzen zaretenean zein da zuen lehengo erreakzioa? Ezeztatu egiten al duzue?**

Bai. Edanda egon arren norberak ezeztatu egiten du nahiz eta barnean jakin alkoholikoa zarela. Goizean jeiki eta kafesnea eskuetan hartzeko gai ez zarela konturatzen zarenan edo aurpegi- ra begiratu eta begizulo izugarriak dituzula ikustean oso gogorra egiten da. Triste da.

**- Dirulaguntzarik jasotzen alduzue?**

"A.A."-ek ez du inongo dirulaguntzarik onartzen. Gu elkartzten garenean liburuak erosteko eta beste zenbait gauzetarako norberak nahi duen dirulaguntza ematen du, besterik ez.

**- Jendeak uste du "A.A." sekta bat dela. Egia al da?**

Jende askok hori uste du baina hori ez da horrela. Gu ez gara ez erlijioan ez politikan sartzen, gu gure arazoez bakarrik arduratzen gara.


*Goizean jeiki eta kafesnea eskuetan hartzeko gai ez zarela konturatzen zarenan edo aurpegi- ra begiratu eta begizulo izugarriak dituzula ikustean oso gogorra egiten da. Triste da.*



**OSTATU**  
**JATETXEA**

Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA


Eguneko menua 800 pzta.  
Karta.



**IRAMA**

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua  
mensatel: 900282828  
abonatua: 247262 tel:  
789057-768025



Mota guztietako otarrak egin zituzten 6. mailakoek.

## OTARGINTZA

### - Materiala:

- Sumitza (ardatza eta haria)

### - Pausoak:

Lehenik eta behin pentsa ezazu zein tamainako ontzia egin behar duzun. Handia egin nahi baduzu gutxi gora-behera 16 ardatz beharko dituzu, txikia egin nahi baduzu berriz, 4 ardatz ingurukin nahikoa. Guk ertaina egiteko erabili beharreko materiala eta prosezua azalduko ditugu. 8 ardatz beharko ditugu beraz.

-Metro bateko ardatzak moztu eta launaka ipini gurutze bat eginez.

-Haria hartu eta launaka hasi pasatzen gaintetik azpira, gaintetik azpira eta horrela lau buelta eman arte.

-Binaka hartuta gauza bera egingo dugu. Bide batez ondo estutu eta 6 buelta eman.

-Bukatzen duzunean bueltak banaka eman, ondo estutuz. Jarraian, gutxi gora-behera 65 zentrimetotako ardatza hartu eta beste ardatzen jarraian sartu.

-Nahi duzun arte jarrai zenezake pausu hau egiten banakabanaka. Goranzko forma eman nahi diozunean, ardatza okertu barrurantz eta hariarekin

gogor estutu. Horrela piskanakapiskanaka forma hartzen joango da.



6. mailakoak

Azkenik, errematatzea bakarrik geratzen da:

-20 zentrimetoko ardatz zatia utzi errematea egiteko. Erremate desberdinak egin daitezke eta guk horietako bat aukeratuko dugu:

-Lehenik eta behin ardatza haria bezala, beste ardatzetik atzeurre, atze-urre egin. Horrela lau edo bost ardatzetatik pasatuz.

Zailegia iruditzen bazaizu, egurrezko ohol borobil bat hartu eta 23 zulo egin. Ondoren zentrimetro bateko 23 ardatz hartu, eta 20 zentrimetroko zatia utzi azpian. 20zentrimetroko ardatzak banaka gorantz igo eta gain-azpi, gain-azpi pasatzen joan haria gastatu arte. Geroxeago haria hartu eta gurutzatuta ipini. Gain-azpi, gain-azpi egiten segi zuk nahi duzunerarte. Errematea egitera zoazenean 20 zentrimetro edo gehiago utzi eta beste ontziaren eredugarri izanez egin errematea.

**Ontzi oso xebreak dauz-kagu!!!!**

Batzuk oso zabalak, beste batzuk oso txikiak (margoak eta arkatzak gordetzeko)...

Gure gelako batzuk ideia zoragarria izan dute: "Margotu, tintatu edo forratu egin genitzake". Ondo pasa bada otarrak egiten.

**GRUPO IFA**  
**Produktorik onenak, prezio onenean**  
**ALDI**  
 Tel: 76 80 98.

**E HARATEGIA AST**  
 San Roque 6  
 Tel: 768168.

Tel: 76 81 31  
 M<sup>a</sup> Jesus Arrazola  
**VIVO**  
 Janari  
 J d e n d a

## ALMEJAK ALKATXOFEKIN

Sukaldaria: Angeles Bolinaga  
(Haizea taberna)



### NOLA PRESTATU:



-Kazola batean olioa berotzen jarri ondoren, gurina gehituko diogu biak ondo nahastu arte. Ondoren, aurretik zatituta daukagun kipula botako dugu. Poliki-poliki egiten utzi eta urdaiazpiko zatiak gehitu.

-Dena ondo bigundu eta gero, almejak botako ditugu eta patxadan utzi zabaldu arte; zabaldutakoan, alkatxofak gehitzen zaizkio. Su bajaran biguntzen lagako ditugu.

-Azkenik, saltsa sendotzeko irina, arrain salda eta ardo zuria gehituko dizkiogu. Prozesu hau ondo eraginez burutu behar da irina kozkortu ez dadin.

### OSAGIAK:

- olioa (koipe gradu 1ekoa)
- gurina
- kipula
- urdajazpikoa
- almejak
- alkatxofak
- ardo zuria
- irina
- salda piskat



### Gomendioa:

- Olioa ondo berotuta egon behar da almejak erraz zabaldu ahal izateko.
- Irina botatzen dugunean ondo eragin behar da ez kozkortzeko.
- Plater honi laguntzeko edari aproposena txakolina izango litzateke.

**EROSLE**

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

**BILTEGI  
DENDA**

*Zugandik  
gertu behar  
duzun beste*

Salbador 24 Tel: 768206

**HAIZEA**

**TABERNA**

giro atsegina  
lagunartean  
egoteko.

Tel: 768256



**Maite Retolatza (21 urte)**

- 1.- Bai, jokatu dugu. Gure partaidetzarekin nesken futbito txapelketa ez desagertzea dugu helburu. Txapelketa irabaztea ez da nire helburu nagusia.
- 2.- Bai. Nik ez daukat ezer kanpoken kontra. Kanpokoak jokatzean talde gehiago egoteaz

gain txapelketa interesgarriagoa izatea lortzen da.

- 3.- Arbitroak txarrak dira eta batzuetan ez dira agertzen. Golen eta partiduen kontuak ondo eraman behar dira iazko arazoak errepika ez daitezzen. Eskubaloiko baloiekin ezin da jokatu. Azkenik esan, daten asuntoa nahiko ondo eramaten dela.

**Sergio Llamas (20 urte)**

- 1.- Ez dakigu nahikoa jende elkartuko garen taldea osatzeko. Gure helburua iazko postua hobetzea da, finel dietarako sailkapena gutxigatik ez baikeuen lortu. Gure helburu nagusia ondo pasatzea da.

- 2.- Bai. Elgetan ez dago nahiko jende ekipo asko egiteko eta beraz ganorazko txapelketa bat antolatzeko. Horrela kanpoko jendea etortzen bada maila handiagoa

- egongo da txapelketan.
- 3.- Futbolaz ulertzen duen arbitro bat ipiniko nuke. Honi ordaindu egin behar bazaio talde guztien artean dirua ipintzea proposatuko nuke. Sarietan dirua edo opari hobeak jarriko nituzke horrela jende gehiagok emango zuelako izena. Baloiak aldatuko nituzke.



**Aritz Aranguren (20 urte)**

- 1.- Bai. Gure helburua ondo pasatzea da eta ahal bada joan den urteko sailkapena hobetzea. Futbitoaren kontu horrekin afaritxo batzuk ere egingo ditugu.

- 2.- Bai. Baina nahiago izango nuke talde guztiak Elgetakoak izango balira, horrela, "pike" handiagoak egongo lirateke taldeen artean.

- 3.- Ganorazko baloiak ekarriko nituzke. Harri koxkor horiekin ezin daiteke gustora jokatu. Arbitratzera eta jokatzerara agertzen ez direnei sartzio gogorrak ipiniko

nizkieke puntuak kenduz. Askotan errepikatuz gero txapelketatik kanpora botako nituzke. Txapelketan apuntatzen bazara konpromezu bat hartzen duzu eta konpromezu hori bete egin behar dela uste dut.



## 1.- Aurtengo txapelketan parte hartuko al duzue? Zein helbururekin?

## 2.- Kanpoko taldeak jokatzearen alde al zaude?

## 3.- Zer aldatuko zenuke hurrengo txapelketari begira?

**Ibai Etxaniz (17 urte)**

- 1.- Bai. Ondo pasatzea da gure helburua eta ahal bada finalera heltzea.

- 2.- Bai, noski. Talde denak Elgetakoak bagina hobeto, baina txapelketa on bat jokatzeo nahikoa talde ez gaudenez kanpokoak jokatzearen alde nago.


- 3.- Lehenik eta behin arbitratzera edo jokatzerara agertzen ez direnei puntuak kentzeko proposatuko nuke. Bestela txapelketa ondo antolatu dagoela esan daiteke.



Berezitasuna:  
Buztana. Pintxo  
gozoak,  
otartekoak.

**BOLATOKI**  
TABERNA-JAETXEA

tel:768284



## ELKORO BIKAIN 4 T'ERDIKO TXAPELKETAN

Azken urte hauetan binakako txapelketetan eskaini duen maila berean aritu da Aitor lau t'erdiko Euskal Herriko txapelketan. Hasiera batean faboritoen artean egon ez arren joko maila bikaina erakutsiz jarraitzaile eta pilotari guztien errespetoa bereganatzea lortu du Elkorok. Txapelketako garailea izan den Arretxeren kontra 22 eta 20 galdu aurretik - 21-20 zihoazela txapara bidali zuen pelotakada goian izan balitz...- Etxaniz (22-11), Unanue (22-13) eta Titin IIIa (22-12) inolako arazorik gabe bide bazterrean utzi zituen. Orain binakako txapelketari aurre egin beharko dio Jorge Nagore (4 t'erdiko azpitxapelduna) lagun duela.

### Ubera II.a DV torneoan

Xabier Ubera jubenilen DV txapelketan parte hartzen ari da Albizuri lagun duela. Orain arte partidu bat jokatu dute Aranburu eta Antxiaren aurka eta galdu egin dute. Interklubs txapelketan berriz, betelako bidea darama Xabierrek. Banaka jokatzen den torneo honetan azken txanparako sailkatu da ihadanik, nahiko joko maila ona erakutsiz. Txapelketa berean Nagusiak ere oso ondo dabilzala esan behar da orain arteko partidu guztiak irabazi baitituzte. Nagusietan txapelketa hau binaka jokatzen da.

### Patxi 3. Bizkaiko txapelketan

Patxi Bouzas 3. postuan sailkatu zen Iurretan jokatu zen Bizkaiko txapelketako Mountain Bike jeitsieran. Horrela, Mendi Bikeko txirrindulariak amaiera ezinhobea eman dio aurtengo denboraldiari, nahiz eta bera ez den oso gustora gelditu. Euskal Herriko txapelketan egindako saioaren erorketa baten ondorioz kuadroa apurtu zuen.

### Hasi da gabonetako bolo txapelketa

Azaroak 16an hasi eta Abenduak 14an amaituko da Gabonetako Bolo Txapelketa. Epe honetan larunbatero egongo dira tiraldiak eta saria tiraldi guztietan erregularrena - txirlo gehien bota dituen - izan denak eramango du. Irabazleak izen ematean bildutakoaren % 35a eta garaikurra eramango ditu, bigarrenak % 25a eta garaikurra, hirugarrenak % 15 eta garaikurra eta laugarrenak bildutakoaren % 5a. Honez gain parte-hartzaile guztien artean gabonetako saskia zozketatuko da.

## GAZTETXOEK EZ DUTE PARTIDURIK GALDU BERGARAN

Iaz bezala Elgetako gazetxoak Bergara joaten dira larunbatero jokatzen den partiduan parte hartzeko. Txapelketa honetan futbitoan jokatzeaz gain, saskibaloian eta eskubaloian ere jokatuko dute. Futbitoa bukatu dute eta emaitzak ezinhobeak izan dira. Neskek partidu guztiak irabazi dituzte eta muti-lak ere ia denak bat izan ezik. Partidu hori berdindu egin zuten. Orain saskibaloian edo eskubaloian jokatu beharko dute eta denok orain bezain ondo jarraitzea espero dugu nahiz eta adin hauetan emaitzak

garrantzirik eduki ez.


Partidu hauetan elgetar eta bergatarren artean izaten den "pikea" ikustekoa izaten da. Azkenik aipatu laugarren partiduan Anerrek bere lehen gola sartu zuela eta jokalaria guztiak pozez gairuzka zeudela.

### Sailkapenak

- 1- Jaime Ulazia 9 txirlo
- Fermin Iribar 9 "
- 2- Jose Maria Arrillaga 6 txirlo
- Jesus Mari Garate 6 "



Neskek, jokatutako partidu guztiak irabazi dituzte.



M<sup>a</sup>  
ESTHER

Tel: 76 81 67



**URONDO**  
elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.  
Tel: 797815/771042 Faxes: 771476 ARRASATE.



Iturbe baserrian berriztatze lanetan dihardute, inguruak eta baserria bera ere txukuntzen. Jauregi zaharraren itxura dauka eta eguzki begi-begian dago kokatuta.

## HATXAREN INGURUAN

**-Harrizko borda asko dago inguruetan. Pinadietan eta pagadietan barneratuz gero aurkituko ditugu. Udazkenak kolorez jantzi du Eguarbitza gaina-**

Zazpi etxebizitza daude 6 baserrian. Gehienak XVII. mendekoak dira. Aspaldiko artalde handiak ia desagertu badira ere zelai politenetakoak daude. Egotxeagako auzoa, Eguarbitzako haitzaren (hatxaren) babesean eraikita dago. Ikuskizun paregabea eskaintzen zaigu "hatxaren" puntatik. Kanpoko jende askok pasatzen ditu asteburuak paraje hauetan.

Azkonabitzan izan ginen joan den hilabetean. Orain, Karabixako gainera jeitxiko gara. Handik ezkerrera, aterpe albotik, Egotxeagako auzora iritxiko gara. Egotxeagako biztanle eta baserriei begira, "Hatxa", Eguarbitzako haitza. Hatxaren babesean, artalde, zelai, baso eta 7 baserri: Egotxeaga Goena, Egotxeaga Azpikoa, Aurtengua, Barrenengua, Iturbe eta Txulokua.

Nork ez ditu ezagutzen paraje hauek? Elgetatik sarri igotzen dugu Eguarbitza aldera, eta Eibartik ere jendea erruz hurbiltzen da kirola egin eta haize fres-

koa hartzera. Dena den, jende ugari hurbiltzeak ez du askotan gauza onik esan nahi: autoak auzoko errepidean maiz azaltzen direlako, basoan behera hondakinak ugartzen hasi direlako eta kamioiek bide bazterrak zabortegei bihurtu dituztelako adibidez.

### Hatxaren puntatik

Elgetakoentzat eta apreziatzen duen edonorentzat, paraje ederrenetakoa da. Eguarbitzako puntara, "hatxera" igoz gero, Txindoki, Aralar, Aizgorri, Udalaiz, Anboto... Mendiak aurrean, atzean eta eskuinean, itsasoaren urdina ezker aldean... Eskua luzatzea eta begiak istea baino ez da behar toki hauetara iristeko. Gau ozkarrietan, izarren dantza itzalezina.

*Mendian zaborra gehituz doa.  
Obretatik eramaten diren  
hondakinak bide ertzean botatzen  
dira eta pinadien azpian (Pago  
Haundi esaterako) benetako  
zabortegei bihurtzeko arriskuan dago*



Aldapan gora eta behera ibiltzeko zaletasunik ez baduzu, Pago Haunditik aurrera auzo guztia zeharkatzen duen ibilbide ederra bat dago. Bidearen ezker aldean aurkituko dituzu auzoko baserriak. Goizeko lehen orduetatik gaueko azken errainuetara eguzkiaren argiak betetzen ditu txoko guztiak.

### Juan Villar Elizburu

Lehenengo aurkituko dugun baserria, Egotxeagakoa da. Baserriak bi etxebizitza ditu, Egotxeaga Goena eta Egotxeaga Azpikoa. Baserri honen lehen datuak XVII mendekoak dira, 1625 ingurukoak. Egotxeaga Goenean, auzoan eta herrian ondo ezagutzen dugun Juan Villar Elizburu bizi da.



Aurten baserria ere, herriko baserri gehienak bezala, nahiz eta ingurua pinuz josita eduki, zelaiz inguratuta dago.

Auzoan eta herrian ezaguna dela esatea gutxi da. Euskal Herri mailako merkatuetan asko ibiltzen da eta pinadiak dituen askok berarekin tratatuak ditu. 86 urte ditu eta pinuak eta beste zuhaitz ezberdin asko hazten ditu bere mintegietan. Bilboko arte eta ofizioen eskolan ikasketak burutu zituen eta promozioiko lehena izan zen. Izadiaz maiteminduta bizi da eta bere adinarekin ere, lanean gogor dihardu. "Euskalduna eta euskotarra" denez beti eramaten du txapela buruan. Bazkal ondoren mila-hostoa deritzan belarura edaten du, hauxe omen da osasun ona izateko sekretua "ordaindu ezin

daitekeen altxorra".

### Iturbe, jauregi itxurako baserria

Bidean aurrera aurkituko dugu Iturbe. Iturriaren azpian, izenak dioen bezala. Lehenago, Iturbe, auzoaren izena zen eta hiru etxebizitza osatuta zegoen. 1600 inguruan aurkitzen ditugu lehen erreferentziak.

Zelaiak behera jarraitzen du eta aldaparen amaieran daude



baserri-etxe ederra. Eguzkiak egun osoan zehar jotzen du.

Aurten baserria eta Barrenengua baserria. Lehenengo 1746koa da, bigarrena berriz 1796koa. Duela pare bat urte Barrenengua baserria erre egin zen. Zati bat berreraiki zuten eta korta aldea baserriatik aparte egin dute orain.

Artalde ugari daude baserri hauen zelaietan. Dena den, geroz eta gutxiago dira baserriko martxan jarraitzen dutenak eta desagertzen daude hain ezagun ziren Aurtengo artalde ederrak.

Abeltzantarako eta artzantarako ohituren adierazgarri dira bordak.

Auzo guztian barrena daude. Batzuk agerian badaude ere, pinadien artean eta pagadientan eskutaturik ere badaude harrizko txabo-

lak. Lehenago bizimoduaren adierazgarri. Gaur egun jende asko hurbiltzen da eta arrastoak nabariak dira, zikinkeria ugari uzten baitute.

Eguarbitzako ipar-mendebaldean dago azkenego baserria, Eguarbitza. Auzotik urrutien gelditzen da eta haitzaren kontran eraikita dago.

### Asteburutan ihesbide

Kanpotik datorren jendea ikusten dugu ibilbide honetan. Bartzuk asteburua pasatzeko tokiak eraiki dituzte. Goiko zelaian eta beheranzko bidean daude, eta hortik hurbil elkarte batek duen etxea ere badago. Hor ibiltzen den jendearentzako toki paregabea da umekin etortzeko eta era berean asteko lanetik urrun egoteko toki apropos da.

Karabixetako gainean, taberna ireki zuten orain urte batzuek. Kotxez joateko aukera dago eta autoa han utzita inguruak aztertzeko eta ezagutzeko aukera. Itzulera bokautxo bat ere janenezake.

**Juan Villar Elizburu bizi da Egotxeaga Goenean. Bere pinuen mintegiak oso ezagunak dira." Euskaldun eta euskotarra" denez beti darama txapela buruan. Euskal herriko azoka askotan zehar ibilitakoa da.**

## GIZA-INMUNITATE ESKASIAREN BIRUSA

Birusaren kutxadura hiru modutan gertatu leike: Lehenengua, odolaren bittartez (donaziñuak, trasplantiak...). Bigarrena, sexu hartuemonetan. Oinarte homosexualak eta drogadiktuak arrisku talde haundixena izan arren, kontutan hartu bihar dogu heterosexualek taldiak gero eta arrisku haundixaua daukela. Hirugarren kutxadura modua amagandik semiaganakua da.

Birusa gorputzera ailegatzarako "periodo ventana" deitzen jako. Une honetan birusa gure gorputzian dago, baina ez dare antikerpuak ondiok. Hile batzuk pasau eta gero, gorputzak formau ditu antikerpuak HIES-aren birusaren kontra. Une bixetan, sintomak egon ez arren, kutxatzeko arriskua dago.

Denpora pasau ahala, defentzak gutxitzen doiaz, birus kantidadia haunditzen da, eta agertzen da infekzio (neumonixia, herpesa...), tumoria edo HIES-aren dementziaren (buru galtzia, kontzentrazio faltia...) arriskua.

Gaur egun, eñ ahal dogun

gauza bakarra prebentziñua da. Praktika arriskudun poblaziñua hiru taldetan banatzen da:

- Drogadikto taldia: Bakotxak bere jeringilak erabiltzia gomendatzen da, eta ez beste drogadikto batekin erdibana erabiltzia. Honetarako jeringilak debalde izan bihar dia.

- Gizartia orokorrian: Lehen esandako moduan, sexu hartuemonen bidez ere kutxatzea gerta leike. Kondoia biharrezkua da sexu hartuemonak eukitzia erabakitzen doguzen momentuan. Komenigarrixa izango litzake gaterixiak hau serixo hartzia. Promiskuidadia gutxitzia edo kentzia gomendatzen da arriskua bajatzeko.

- Ama seropositibo baten arriskua: Haurdun geratu ezkeru abortatzeko aukera legala dago. Umiak seropositubua izateko eta umezurtz geratzeko arriskua dauka. Honek amonek umia eukitzia erabakitzen badau, umiak anti-kerpuak euki leikez. Antikerpuekin jaiotzen bada, honek amanak edo umianak izan leikez. Honek antikerpuok desagertuko dia baina umianak badia ez dia desagertuko. Horregaittik jaiotze-

ziñua: Jentia informauta bihar da aholkuak emoteko eta HIES-aren probak eittia gomendatzen da. Honek, debalde dia ez dago zertan izenik emon bihar eta erresultauak telefonoz hartu leikez numero sekretu baten bittartez. Jakiña, anonimua da eta ez da ezer kostatzen. Analisi hauen bittartez portadoriak gazen ala ez jakin geinke. Portadoria, ez da HIES-aren gaixua, birusa daukana baiño azken hau jakin ez arren. Gaixua da HIES-aren sintomak daukana infekzio, tumore edo HIES-aren dementzia.

Tratamentuak badare baina ondiok ez dago ezer birusa akabatzeke. Denpora gehixau geldittu eraittia bakarrik lortu da.

Ezjakintasunak bilddurra dakar berakin baina horregaittik ez daukau zertan iñor baztatu. Txisa, kaka, txistua, negar malkuak, edo ixardixakin ezin da kutxatu.

HIESa berandu agertzen da eta horregaittik komenigarrixa da noixian behin analisisak eittia lehen aittatutako arrisku talde baten barruan gaozela pentzau ezkeru.

Azkenengoz esan bihar da birus hau oso makala dala gorputzetik kanpora dagonian eta lejia nahikua dala odolakin zikindutako erropia edo beste edozer desinfektatzeko.

Osasun Saileko eduka-

Belen Maiztegi

# LENIZ

## AUTO ESKOLA

Arana, 13 Tel: 714186  
**ESKORIATZA**

Aldai, 9 Tel: 794604  
**ARRASATE**



Jesús Mari Montiel  
**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**  
Aretkale 3.  
Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE  
ETA BAINUGELATAN**

## ELKORO TORLOJU LANTEGIA

### DEKOLETATA ETA FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua z/g 20690 Elgeta  
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203



Argazkia: Maria Angeles Elkoro

## Mutikoak eta neskatoak batera ikasterik ez zegoen

Maalan dago aterata erretratu, orain ikastola berria dagoen lekuan. Honezkero konturatuko zineten moduan, bertan dauden guztiak mutikoak dira. Erretratukoek eta nagusiagoek ere jakingo duzue, garai haietan, 1963. urte inguruan neskak eta mutilak gela ezberdinetan sartzen zituztela. Maalako eskolan, hau da nazionaletan dago aterata kinta berekoek osatutako mutikote talde hau. Maistruaren izena ezin izan dugu jakin baina bai beste mutikoteena:

Goian ezkerretik eskuinera:

**Alberto Loidi, Pello Oianguren, Jose Arantzabal, Iñaki Iturrigaztelu, Juan Luis Beretxinaga, Pello Gorrotxategi, Jorge Saratsua eta Pako.**

Behean ezkerretik eskuinera:

**Jose iñaxio Juaristi, Juan Luis Juaristi, Patxi Montiel, Jabier Ibaibarriaga, Joseba Elkoro, Felix Sarasketa, Eloi Irazabal, Jesus Mari Arizmendiarieta, Esteban Sarasketa eta Jabier Bolinaga.**

Oh.: atal hau mantentzea guztion ahalegina da. Etxeko txokoren batean gordeta duzuen erretratu hori jaso nahi genuke. Horretarako **Goibekokaleko** buzoira bota besterik ez duzu (udaletxeko arkupetan dugu buzoia). Argitaratu ostean bueltatuko dizugu erretratu. Ez ahaztu erretratuarekin batera zure telefono zenbakia uztea. Aurrez eskerrikasko.



# Goibekokale aldizkariko loteria salgai

21.528 zenbakia

Taberna eta  
dendetan daukazu.  
Ez galdu aukera.



## GAZTE ASANBLADAREN ABENDUKO EGITARUA

- ABENDUAK 13 → DIAPOSITIBA EMANALDIA. "Bi emakume Turkiatik  
barikua Gaueko 9:30etan Birmaniara bizikletaz".
- ABENDUAK 26 → UMEENTZAKO EKINTZAK  
eguna Arratsaldean.
- ABENDUAK 27 → KONTZERTUA; NOIZBAIT ETA NON DEMONTRE.  
barikua Gaueko 10etan.
- ABENDUAK 29 → HITZALDIA ETA DIAPOSITIBAK; INTERNAZIONALISMOA  
domeka Arratsaldean 6:00etan.
- ABENDUAK 31 → AIZKORRIRA IRTEERA, URTEAREN AZKEN EGUNEAN.  
martitzena Goizean 8:00etan

HILE GUZTIAN ZEHAR DANTZA IKASTAROA.

HILE BUKAERAN BERRIZ ERE **GOIBEKOKALE**  
IZANGO DUZU ESKUETAN.